

## SEGMENTAZIOA

Gure produktuak bezero mota ugari lagunduko ditu. Gure publikoa **16 urtetik gorakoenentzako** izango da, adin horrekin poltsoak eramaten hasten direlako Gailu elektronikoak dituen edozeinek erabiltzeko aukera izango du, baina egia da, erabilgarriagoa izango dela **teknologia hauek egunero erabiltzen dituzten pertsonentzat**.

Modu honetan, aurretik emandako abantailen erabilera izango dituzte. Esate baterako, **unibertsitateko ikasle** batentzat, onuragarria izango litzateke erabilera handia ematen dietelako ordenagailuei eta egunen baten kargatzailea ahaztekotan, gailua kargatzeko aukera izango lukete. Horrez gain, lagungarria litzateke asko **bidaiatzen duten pertsonentzat**, etxetik kanpo denbora handia ematen dutelako.

DATUEN BILAKETA egiteko eta gure bezeroen informazioa eskuratzeko, inkestak egingo ditugu online bidez, gure webgunean inkesta egiteko linka izango dute. Honen bidez datu objektiboak izango ditugu. Antolatzaileak fabrikatu baino lehen inkesta egingo dugu, baina salmentak edukitzerakoan inkesta berriz errepikatuko dugu, honen bidez bezeroei organizatzaileak gustatu zaien jakingo dugu. Inkesta honen bitartez jakingo dugu zer jende-motak erosi nahi duen eta, nahi izanez gero, antolatzaile mota bakoitzean zenbat plaka jarri behar ditugun jakin ahal izango dugu.